

IHESLARIAK. Jendeak susmo hori zuen, baina azkenean ez zuten atxilotu HBko parlamentari ohia ongietorrian

«Gatazka konpontzeko lanera» itzuli direla esan du Alkaldek

Ongietorriak egin zizkieten Donostia, Portugalete eta Iruñean iheslari ohiei

Onintza Enbeita | **PORTUGALETE**
Irene Arrizurieta | **IRUÑEA**

Urtarrilaren 4an etxera bueltatu ziren iheslarietako batzuk ongietorria izan zuten atzo. Portugaleten mila lagunek babestu zuten Angel Alcalde. Auzitegi Nazionalak haren aurka ezer ez dagoela esan zuen, baina Er-tzaintza han agertu zen, eta susmo txarrak piztu zituen.

Bertsolariak dei egin zion, eta jendea kalera, kalera kantatzen hasi zen txistuaren erritmora; Alcalde ez zen ageri. Atzera begiratu zuten askok, etorri orduko eraman zutelakoan. Halako batean, agertokira igo zen txalo artean. Makila, txapela eta zazpi krabelin gorri oparitu zizkionten.

Dantzarien agurra jasotzeko, herriko preso eta iheslarien senideak bildu zitzaizkion. Azkenean, mikrofonoa hartu zuen. «Geure borondatez itzuli gara, zuekin batera gatazka konpontzeko», esan zuen.

Alkaldek manifestazioko pankarta hartu zuenean, asko hurreratu zitzaizkion. Denentzat izan zuen irribarre, musu zein besarkada bat. Susmoak susmo, atzo, Portugaleten lo egin zuen 17 urteko partez.

Iruñean Poliziak galarazi

Iruñean, errefuxiatuen alde egitekoa zen manifestazioa, galarazi egin zuen Espainiako Poliziak. Hitzordua 18:30ean zen zezen plaza aurrean. Jendea bildu zenerako, han zegoen po-

lizia. Inguruko kaleak eta Karlos III Etorbidea ere hartua zuten. Zezen plazara hurbiltzen zen jendea identifikatzen hasi ziren. Berehala, megafonoa hartu eta sakabanatzeko agindu zuen polizia buruak, Espainiako Gobernu Ordezkaritzari manifestazioaren berri ez zitzaiola eman argudiatuz.

Deitzaileek elkarretaratzea egiteko baimena bazutela salatu zuten; alferrik. *Euskal Herria libre. Eskubideak jorratuz* lelo-peko manifestazioa ez zen atera, eta bildutakoek alde egin behar izan zuten.

Hala ere, Euskal Herritik kanpo dauden 2.000 errefuxiatu baino gehiagoren egoera «kaskarra» salatu zuten. Deitzaileek, errefuxiatuei, Euskal Herrira itzultzea galaraztea «txantajea» dela deitoratu zuten. Manifestazioa egin ez arren, goizean, Alde Zaharrean antolatutako ekitaldiak egin ziren. Navarrerriako plazan txalaparta emanaldia egin zuten eta Udal plazan dantzariak ibili ziren. San Frantzisko plazan sokatira dema antzeztu sokaren alde batean euskal herritarrak eta bestean, espainiar eta frantses herritarrak zirela.

Donostian ere, ongi etorri ekitaldia egin zioten atzo iluntzean Kandido Ostolaza eta Lourdes Zorrozueta senar-emazteei. Gernika-Lumok eta Pasaia hartuko dute lekukoa. Gaur eguerdian, herriotako iheslarietako egingo baitzaie ongi etorria.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Goian, Angel Alcalde, Portugaleten egin zioten ongietorrian. Behean, Kandido Ostolaza eta Lourdes Zorrozueta, Donostiako Parte Zaharrean egindako ekitaldian.

Aretxabaletako Udala

IRAGARKIA

2002ko abenduaren 23an izandako Ez Ohiko Osoko bilkuran erabaki zen Aretxabaletako 2b sektoreko plan partzialaren aurrerapena onartzea. 30 eguneko jendeaurreko epea zabaltzen da iradokizunak edota alternatibak aurkezteko.

Aretxabaleta, 2003ko urtarrilaren 3a.
ALKATEAK.

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

EPE 2002 - IRAKASLEEN KIDEGOAK

2003ko urtarrilaren 14an argitaratu da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Langileria-aren Kudeaketa zuzendariaren 2002ko abenduaren 18ko Ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-Maistren Kidegoan, Lanbide-Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan, Bigarren Mailako Irakasle Kidegoan, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako Irakasle Kidegoan eta Musika eta Arte Eszenikoko Irakasle Kidegoan sartzeko hautespen probetarako onartutako eta lehiaketaz kanpo utzitako behin-behineko zerrenda onartzen da.

Zerrenda horiek daude Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak Interneten duen helbidean ere: <http://www.hezkuntza.ej-gv.net>

Kanpo utzitako zerrendaren aurka, urtarrilaren 15etik 25era, biak barne, izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute baztertzeko arrazoi izan diren eta zuzentzeko gai diren akatsak zuzentzeko. Euren datu pertsonaletan akatsen bat antzeman duten izangaiek epe bera izango dute akatsak zuzentzeko.

TOLOSAKO UDALA

LEHIAKETA

B52102020e

- 1.- **Helburua.**- Aranburu Jauregian Klimatizazioa eta Erreformak
- 2.- **Lizitazioaren zenbatekoa.**- 103.878,94 €
- 3.- **Lanak egiteko epea.**- Epea behar bezala zehaztuta aurkeztu behar da, lanek oztopa ez dezaten eraikinean gauzatzen den lan jardura.
- 4.- **Espedientea ikusteko.**- Kopibat (Poeta Lizardi plaza 2), telefonoa: 943 65 51 66
- 5.- **Behin-behineko fidantza.**- 2.100,00- €
- 6.- **Behin betiko fidantza.**- 4.200,00 €
- 7.- **Eskaintza egiteko epea eta tokia.**- Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregistroan, Plaza Zarra 6 b, 2003ko otsailaren 12an eguerdiko orduabata (13:00). arte.

Tolosa, 2003 urtarrilaren 17a
ALKATEA